

U D A L G I N T Z A :

2011KO UDAL AURREKONTUAK.

HAUTETSI INDEPENDENTISTEN PROPOSAMENA

Beste behin ere, Getarian, urte osoko diru kudeaketa PNVk erabaki du, gainontzeko alderdiei parte hartzeko aukerarik eman gabe, eta noski, herritarren parte hartzea alboratuta.

Herritarrei botoa eskatu, zergak eskatu, herriko ekintzetan parte hartzea eskatu, baina benetan beraiengan eragingo duten erabaki garrantzitsuetan, aurrekontuak kasu, alde batera uzten dira.

2011ko aurrekontuak ez dira herritarrei begira egingakoak, PNVren interesetara egokitutakoak baizik. Horren aurrean, Getariako Ezker Abertzaleko Hautetsiok, honako proposamenak egin dizkiogu, udal gobernuari, eta ohitura den bezala, denak baztertu dituzte.

- Herritarren parte-hartze zuzena eskatzen dugu aurrekontuak osatzean, batzorde irekiak osatuz.

- Nazio eraikuntzarako egitasmoiei babes handiagoa eskaini, eta horretarako, diru ekarpen handiagoa egin.
Udalbiltzari: 3.000 €

- Euskarari dagokionez, UEMA elkartean berriz sartu, 7.000 €, eta euskararen inguruko ekimenei dagokionez, -Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Ibilaldia, Araba Euskaraz eta Kilometroak-, 300 euroko laguntza eman ekimen bakoitzari.
Korrikari kilometro bat erosi: 500€.
Euskarazko hedabideei (Artzape, Hitza, Erlo telebista) biziraupena bermatzeko, diru ekarpena handitu: 3.000€
Euskara teknikaria lanaldi erdian: 22.000€

- Gizarte ongizateari dagokion garrantzia eman eta aurrekontua gehitzea eskatzen dugu: zailtasun ekonomikoak dituzten pertsoneri eta familiei babes eman, eta zahar-etxeko, sexu parekidetasuneko, Gaztetxeko eta abarreko zerbitzuak gehitu eta hobetu.
Gaztelekuaren kudeaketa: 55.000€
Getariako jubilatu eta pentsionisten beharrak aztertzeko egitasmoaren idazketa: 12.000 €
Udalbatzarrak onartu bezala, aurrekontuaren %0,7 hirugarren munduan garapen proiektuetarako bideratu.

- Polikiroldegia egokitu eta konponketa lanak egin: 100.000€


- Herri bideak berreskuratu eta identifikatu: 6.000€

- Aurreikusten diren gastuak ez dira errealak; izan ere, ohiko gastuetan (adibidez, hornidura, mantenu lanak, gasa, ura...) berdin jarraitzea edo jaistea aurreikusten da, eta horretarako aurkezten diren neurriak ez dira nahikoak horrenbesteko aurrezteak planteatzeko. Hori zuzentzea eskatzen dugu, etorkizunean kreditu aldaketa bidez konpondu behar ez izateko.

- Azken 3 urteetako aurrekontuak aurkeztean eskatu duguna (politikari liberatu baten gastua aurrezteak) aurrekontu hauetan ere jasotzen da. Hala ere, liberazio horren soldata 21 mailara jaistea eskatzen dugu.

- Udal langileak prestatzeko eta trebatzeko 600 euroko aurrekontua oso murrizta da. Ez da konfiantza hartzen langileen trebakuntzak udalari dakarkion onura.
Langileen trebakuntzarako: 2.000€

- Lurzoruaren legeak agintzen du ekitaldi bakoitzeko sarreraren 1. eta 2. kapituluko %10 lur publikoa eskuratzeko bideratu behar dela. Lau urterri (legealdiari) dagokion diru hori guztia, Menditxo plaza berritzera bideratzea ez zaigu egokiena iruditzen; izan ere, lege horren helburua etxe publiko eta lursail publikoak sortzea da. Eskatzen dugu legeak agintzen duen kopurua aipatutako helburua gauzatzera bideratzea: 70.000€.



Zure ahotsa, gure HITZA

Getariako herrian PNVk urteak daramatza bakarrik gobernatzen. Hori izan da beraien apustua. Bakardade horretan eta getariarren gehiengo sozialari bizkar emanez jeltzaleek harturiko erabakiak kezkatzekoak direla pentsatzen dugu. Hona hemen horietako batzuk:

- 1.-Euskararen normalizazioan atzerapausoak eman dira euskara-teknikaria kenduz eta herria **UEMATik** ateraz.
- 2.-Gipuzkoako herririk zorpetuenen artean dago gurea.
- 3.-Inon ez bezala, Getarian bi politikarik soldata handiak jasotzen dituzte (alkateak eta alkateordeak).
- 4.-Urteetan etxebizitza publikorik egin ez, eta oraingoan, eraikitzaile handien baldintzen araberako eskaintza egin dute, inolaz ere herritarren eros ahalmenarekin bat ez datorrena
- 5.-Erabakietan herritarren parte hartzea alboratzen dute.
- 6.-Herritarrengandik oso urrun dagoen super-museo garestia, herrirako guztiz gehiegizkoa dena, bultzatu dute.
- 7.-Gehiengo soziala osatzen duten oposizioko alderdiak mespretxatu dituzte.
- 8.-Indarkeriazko ekintzen aurrean (ertzaintzak herritarren aurka egin dituenak) guztiz pasibo egon dira.

Horri guztiari familien zorpetze tasa handiak gehitu behar dizkiogu, EREak, pentsioen murrizketak, erretiro adinaren luzatzea, langileak kaleratzeko gero eta erraztasun gehiago izatea, soldata prekarioak, finantza merkatuek sortu duten zorra langile guztien diruarekin ordaintzea...

Salaketa eta kexu horiek getariar guztion ahotan daude, getariar askoren eguneroko ogia dira. Baina eguneroko kexu horiek iraganeko kontuak izan daitezke!

Aldaketa azkar eta sakon baten beharrean gaude, soilik aldaketak aterako gaitu gauden egoera larritik.

Garaia da, beraz, Getarian orain arteko jarduera politikoaren ardatzak errotik aldatzeko. Gure esku dago PNVk bultzatzen duen praktika zaharkitu hori aldatzea. Gure esku dago errealitate hori iraultzea. Izan gaitezen Aldaketa. Eta aldaketa horren gidaria. Oraingoan bai!!

Ausart zaitetz aldaketara. **Zure ahotsa, gure HITZA!**

Guk ez ditugu interes pertsonalak, ez gaude gure patrikak betetzeko. Jazarpena, ilegalizazioak, epaiketak... ezagutu ditugu gure ardurak betetzeagatik, baina gure konpromisoa harago doa. Getaria, Euskal Herria, gatazka politikoa gainditzea, aldaketa politiko eta sozialaren eta herritarren ongizatearen alde lan egingo dugunaren irmotasuna dugu.

Horretarako, herritarren ahotsa jaso ahal izateko bitartekoak jarriko ditugu, zure ahotsa entzuteko: besteak beste, etxe guztietara inkesta banatuko dugu, web gunea ireki, zuzenean herritarrekin eta eragileekin elkartuko gara, auzoetara joango gara, Elkano kalean bulegoa ireki eta plazan haima jarriko dugu. Herrian getariarren parte-hartzea bultzatuko dugu Getaria eta getariarrak baitira gure helburu.

Horregatik, HERRI PROGRAMAREN osaketarako, abertzale, ezkertiar eta independentisten parte-hartzea bilatuko dugu, herrietan eta auzoetan.

Parte hartzeko deia egin nahi dizuegu, eta bide horretan, **zure ahotsa gure HITZA** izango da. Ez gara besteak bezalakoak, HITZEZKOAK gara, gure HITZA betetzen dugu eta berriro ere hori frogatzera gatoz.



INKOMUNIKAZIORIK EZ! TORTURARIK EZ! ASKI DA!

Euskal Herriak pairatzen duen errepresio oldaraldiaren baitan, tortura errealitate gordina da. Azken 30 urteotan, kasik 10.000 euskal herritarrek torturak edo tratu txarrak salatu ditu polizia ezberdinen esku egon ondoren eta 5 dira torturapean hildako herritarrak.

Aurten, 30 urte betetzen dira, Joxe Arregi Zizurkildarra, polizia espainolen eskuetan, 9 egunez inkomunikatua eta torturatua izan

auzitegiak, Mattin Sarasola eta Igor Portu torturatzea egotzita lau Guardia Zibil zigortuak izan ziren. NBE errelatoreek ere salatu izan dute tortura ahalbidetzen duen inkomunikazio erregimenarekin amaitzeko urratsak eman behar dituela gobernu espainolak. Euskal gizartearen gehiengo ere praktika honen aurka azaldu da, urriaren 30ean Donostian eginiko manifestazio nazionalen argi geratu zen bezala.

Hau horrela izanik ere, inkomunikazioa erabiltzen jarraitzen du Espainiako Gobernuak tortura eta tratu txarrei bide emanez. Torturaren eragina ez da komisarian amaitzen. Torturapean egindako deklarazioak froga bezala erabiltzen dira auzitegietan, eta froga hauek herritarrak zigortzeko erabiltzen dira.



ostean, hil zela. Baina tortura ez da iraganeko kontu bat, gobernu espainolak, urte guzti hauean inkomunikazioa eta tortura basatiak erabiltzen jarraitu du euskal disidentziaren aurka.

Kolpeak, presio psikologikoak, poltsaren aplikazioa, elektrodoak, jazarpen sexualak... ohiko praktikak dira Espainiako komisaria eta kalabozoetan. Iaz 64 izan ziren torturak salatu zituzten herritarrak eta urtea hasi zenetik, 7 dira jadanik esku artean ditugun tratu txarren salaketak.

Torturaren praktika ezkutatu ezinezko errealitatea da gure herrian. Estrasburgok Espainiako Estatuak zigortu du tortura salaketa bat ikertu ez izanagatik. Abenduan, Gipuzkoako probintzi

Aro berri bat irekitzen ari da Euskal Herrian, baina alde batetik etorri diren distentsio keinuek errepresioa izan dute ordainetan. Espainiako Gobernuak torturari latzenak jarri ditu mahai gainean, gure herriaren benetako konponbidea eta bakea erdiesteko emaniko urratsei muzin eginez. Giza eskubide guztien bermeaz hitz egiten ari garen honetan, errepresioa da estatuak herri honi egiten dion eskaintza bakarra.

Norabide honetan, basakeria honekin amaitzea premiazkoa da Euskal Herriarentzat. Torturarekin behin betiko bukatu behar dugu! Herritarren presioa izango da Estatu mugiaraztea lortuko duen aktiboa. Honenbestez, Amnistiaren Aldeko Mugimendutik, deia luzatzen dizuegu Torturaren aurka burutzen diren mobilizazioetan parte hartzera.